

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA
TXINGUDIKO ZERBITZU
MANKOMUNITATEAREN ARTEKO
LANKIDETZA HITZARMENA, HONEK
ESKATUTAKO ZUZENBIDE PUBLIKOKO
SARRERAK BIDE EXEKUTIBOAN BILTZEKO.**

Donostian, 2007ko urriaren 11 (e)an,

HONAKO HAUEK BILDURIK

Alde batetik, Pello González Argomaniz jauna, Ogasuneko eta Finantzarako foru diputatua eta, bestetik, Jose Antonio Santano Clavero jauna, Txingudiko Zerbitzu Mankomunitatearen lehendakaria.

ADIERAZI DUTE

I

Ogasun eta Finantza Departamentuari dagokio, Gipuzkoako Foru Aldundiaren izen eta kontura, foru zerga sistema eraginkortasunez aplikatzea eta, oro har, beste herri administrazio eta ente batzuen zuzenbide publikoko baliabideak ere, horiek kudeatzeko ardura Legez edo Hitzarmen bidez bere gain uzten zaionean. Hitzarmen hau dela medio, Gipuzkoako Foru Aldundiak zergabiltzetaren kudeaketarako dituen informazioa eta baliabide teknikoak mankomunitatearen esku jartzen dira.

II

Herri administrazioen arteko harremanetan elkar laguntzak printzipio gidaria izan behar duela aintzat harturik, eta 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedurarenak, 4.1.d) artikuluan ezarritakoan oinarriturik, bi aldeek uste dute, zein bere helburuak betetze aldera, oso onuragarri

**CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA
EXCMA. DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA
Y LA MANCOMUNIDAD DE SERVICIOS DE
TXINGUDI PARA LA RECAUDACIÓN EN
EJECUTIVA DE LOS INGRESOS DE DERECHO
PÚBLICO ENCOMENDADOS POR ÉSTA.**

En San Sebastián, a 11 de octubre de 2007.

REUNIDOS

De una parte, D. Pello González Argomaniz, Diputado Foral de Hacienda y Finanzas, y de la otra D. Jose Antonio Santano Clavero. Presidente de la Mancomunidad de Servicios de Txingudi.

MANIFIESTAN

I

El Departamento de Hacienda y Finanzas es el encargado en nombre y por cuenta de la Diputación Foral de Gipuzkoa, de la aplicación efectiva del sistema tributario foral y, en general, de aquellos recursos de derecho público de otras Administraciones y Entes Públicos cuya gestión se le encomienda por Ley o Convenio. Mediante este Convenio, se pone a disposición de la Mancomunidad la información y recursos técnicos de la Diputación Foral de Gipuzkoa para la gestión recaudatoria.

II

En el marco de colaboración mutua que debe presidir las relaciones entre administraciones públicas establecido en el artículo 4.1.d) de la Ley 30/1992 de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, ambas partes consideran muy beneficioso para el cumplimiento de sus

izan daitekeela lankidetzat sistema egonkor bat ezartzea zergabilketaren kudeaketan.

Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituenak, 55.3 artikuluan xedatzen duenez, udalezgaindiko entitateei, kasu bakoitzean gogoan izan beharreko berezitasunak kontuan direlarik, aplikagarria izango zaie aipatu foru arauaren II. Tituluan udalerrientzat ezartzen dena.

Horrela, aipatutako 11/1989 Foru Arauak 2.2 artikuluan xedatzen duenarekin bat etorritik, Mankomunitateek, zuzenbide publikoko sarrera gisa jaso behar dituzten tributu eta zenbatekoak kobratzeko, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Ogasunerako legez ezarrita dauden eskumen eta eskubideak izango dituzte eta, hala behar denean, dagozkien administrazio prozeduren arabera jardungo dute.

Era berean, 8. artikulua arabera, Foru Aldundiarekin lankidetzan arituko dira, hitzarmen egokia izenpetuz, tributuak kudeatu, likidatu, ikuskatu eta biltzeari dagokion guztian.

Bestalde, abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Zergabilketa Erregelamendua onartzen duenak, 3.3 artikuluan jasotzen duenez, Ogasun eta Finantza Departamentuko organoek beste herri administrazio batzuen baliabideak biltzeko kudeaketa hartu dezakete beren gain, hitzarmenak formalizatuta eta horiek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta. Dekretu horrek berak gero 5. artikuluan dio tokiko entitateak arduratuko direla zergabilketaz, eta honako hauek burutuko dutela: a) entitateek beraiek zuzenean eta, b) zorren esparruko beste lurralde ente batzuek, haiekin hitzarmena formalizatu bada edo ahalmen horren eskuorde eman bazaie.

Azaldutako guztia kontuan hartuz, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Txingudiko Zerbitzu Mankomunitateak ERABAKI DUTE lankidetzat hitzarmen hau izenpetzea honako oinarri jarraituz.

respectivos fines, el establecer un sistema estable de colaboración mutua en la gestión recaudatoria.

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 55.3 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, a las Entidades Supramunicipales les resulta de aplicación, con las especialidades que procedan en cada caso, lo dispuesto para los Municipios en el Título II de la citada Norma Foral.

Así, en aplicación del artículo 2.2 de la citada Norma Foral 11/1989, las Mancomunidades, para la cobranza de los tributos y de las cantidades que como ingresos de Derecho público deban percibir, ostentarán las facultades y prerrogativas establecidas legalmente para la Hacienda del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y actuarán, en su caso, conforme a los procedimientos administrativos correspondientes.

Asimismo, según su artículo 8, colaborarán con la Diputación Foral, mediante la suscripción del oportuno convenio, en todos los órdenes de gestión, liquidación, inspección y recaudación de tributos.

Por otra parte, el artículo 3.3 del Decreto Foral 38/2006, de 2 de agosto, por el que se aprueba el Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa, señala que los órganos del Departamento de Hacienda y Finanzas podrán asumir la gestión recaudatoria de los recursos de otras Administraciones Públicas mediante la formalización de los correspondientes convenios que se publicarán en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, y el artículo 5 dispone que la gestión recaudatoria de las Entidades Locales corresponde a las mismas y se llevará a cabo: a) por las propias entidades y, b) por otros entes territoriales a cuyo ámbito pertenezcan cuando así se haya establecido legalmente, cuando con ellos se haya formalizado el correspondiente convenio o cuando se haya delegado esta facultad en ellos.

Por todo lo expuesto, la Diputación Foral de Gipuzkoa y la Mancomunidad de Servicios de Txingudi ACUERDAN suscribir el presente Convenio de Colaboración que se regirá por las siguientes

ONARRIAK:

Lehena. Hitzarmenaren xedea eta erregimen juridikoa.

Hitzarmen honek baldintzak eta prozedura ezartzen ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak, Ogasun eta Finantza Departamentuaren bitartez, bere gain har ditzan mankomunitate izenpetzaileak eskatutako zuzenbide publikoko sarrerak bide exekutiboan biltzeko jarduketak.

Jarduketa horiek arautzeko honako hauek hartuko dira kontuan:

- a) Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Zergabiltketa Erregelamendua.
- c) Hitzarmen honen oinarriak.
- e) Aplikagarri diren gainerako arauak.

Bigarrena. Aplikazio eremua.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Ogasun eta Finantza Departamentuaren bitartez, mankomunitate izenpetzaileak eskatutako zuzenbide publikoko sarreren biltzea exekutiboa bere gain hartu ondoren, hitzarmen hau Gipuzkoako Lurralde Historikoan biltzekoak diren zorrei aplikatuko zaie.

Hirugarrena. Jarduteko eskaera, Mankomunitateak Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuari zuzendua.

1. Zergabiltketa exekutiboan jarduteko eskaerak Mankomunitateko lehendakariak egingo ditu, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko zuzendari nagusiari zuzenduta. Horretarako, Hitzarmen honen I. eranskinean ageri den eredua erabiliko du, eta bi ale beteko ditu. Eskaera hilean behin egingo da gehienez, eta bertan sartzen diren zorrak zenbateko nagusiari buruzkoak izango dira beti. Bidezkoa denean, zenbateko nagusiari dagokion premiamenduzko erreklamo gehituko zaio.

2. Eskaerak tramitatu ahal izateko, ondoko informazioa jaso beharko dute.

BASES:

Primera. Objeto del Convenio y régimen jurídico.

El presente Convenio establece las condiciones y el procedimiento para que la Diputación Foral de Gipuzkoa, a través del Departamento de Hacienda y Finanzas, asuma las actuaciones de recaudación ejecutiva de los ingresos de derecho público que le encomiende la Mancomunidad firmante.

Dichas actuaciones se registrarán por:

- b) El Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa.
- d) Las bases de este Convenio.
- f) Las demás normas que sean aplicables.

Segunda. Ámbito de aplicación.

Habiendo asumido la Diputación Foral de Gipuzkoa, a través del Departamento de Hacienda y Finanzas, la recaudación ejecutiva de los ingresos de derecho público que le encomiende la mancomunidad firmante, el presente Convenio se aplicará a las deudas cuya gestión recaudatoria deba realizarse en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Tercera. Petición de actuación al Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa por parte de la Mancomunidad.

1. Las peticiones de actuación en la gestión recaudatoria ejecutiva las realizará el Presidente de la Mancomunidad y las dirigirá al Director General de Hacienda del Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa. Para ello utilizará el modelo que figura como anexo I del presente Convenio, cumplimentándolo por duplicado. La petición se hará como máximo una vez al mes, y las deudas incluidas en la misma se considerarán siempre en su importe principal, al que se le añadirá, cuando proceda, el recargo de apremio correspondiente.

2. Para ser tramitadas, las peticiones deberán recoger la siguiente información:

a) Zordunaren izen-abizenak edo sozietate izena, Identifikazio Fiskaleko Zenbakia eta helbidea.

b) Zein likidazio sartzen diren eskaeran, bakoitzari buruz honako datuak adieraziz: kontzeptua, ekitaldia, zenbatekoa, borondatez ordaintzeko epea amaitu den eguna, eta premiamenduzko probidentzia noiz egin den.

c) Premiamenduzko bidean biltzeko azken egintza administratiboa zein egunetan jakinarazi den, zorra ere adieraziz, hala badagokio.

3. Mankomunitateak euskarri magnetikoan bidali beharko ditu zor guztiak. Euskarri magnetikoak bete behar dituen ezaugarri teknikoak Hitzarmen honen II. eranskinean zehazten dira.

4. Onartua izan baino lehen, Gipuzkoako Foru Aldundiko zerbitzu informatikoek euskarri magnetikoa balidatuko dute, beti ere bere ezaugarriak II. eranskinean aipatzen diren zehaztasunekin bat ote datozen egiaztatzeko.

Mankomunitateak bidaltzen duen euskarri magnetikoak ez baditu II. eranskinean zehazten diren beharkizun teknikoak betetzen, euskarri hori errefusatu egingo da eta mankomunitateari bueltatuko zaio.

5. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuan zergabilketa exekutiboaz arduratzen den organoak egin behar dituen balidazioek baldintzatuko dute euskarri magnetikoaren behin betiko onarpena.

Adierazitako datuak zuzenak ez badira, mankomunitateak erantzungo du horrek eragin ditzakeen kalteengatik.

6. Jarduteko eskaeran sartzen diren likidazioek irmoak behar dute izan, eta ezingo dute 10 €-tik beherako zenbatekorik eduki. Jarduteko eskaera behin eginda Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak onartzen badu, mankomunitateak ezingo du inolako jarduketarik egin bertan sartutako zorren kontra, gutxienez hauek itzuli bitartean.

7. Zergabilketaren kudeaketa Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak bere gain hartu ondoren, kudeatu beharreko zorreetatik mankomunitateari egiten zaizkion

a) Nombre y apellidos / Razón social, Número de Identificación Fiscal y domicilio del deudor.

b) Liquidaciones que se incluyen en la petición, detallando para cada una de ellas: concepto, periodo, importe, fecha de finalización del periodo voluntario de pago y fecha de emisión de la providencia de apremio.

c) Fecha de notificación del último acto administrativo de recaudación en vía de apremio con indicación de la deuda, si procede.

3. La Mancomunidad deberá remitir la totalidad de las deudas en soporte magnético. En el anexo II del presente Convenio se especifican las características técnicas que debe cumplir dicho soporte magnético.

4. Antes de su aceptación, el soporte magnético será sometido a una previa validación por los servicios informáticos correspondientes a la Diputación Foral de Gipuzkoa, para verificar que sus características se ajustan a las especificaciones señaladas en el anexo II citado.

Si el soporte magnético remitido por la Mancomunidad no cumple los requisitos técnicos especificados en el anexo II, se rechazará dicho soporte y se devolverá a la Mancomunidad firmante.

5. La aceptación definitiva queda condicionada a las validaciones que se han de efectuar por el órgano encargado de la recaudación ejecutiva en el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

En caso de que los datos consignados sean incorrectos, la Mancomunidad será responsable de los perjuicios que puedan producirse por dicha causa.

6. Las liquidaciones incluidas en la petición de actuación serán firmes y su importe no podrá ser inferior a 10.-€. Una vez realizada la petición de actuación y asumida ésta por el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa, la Mancomunidad no podrá actuar sobre las deudas que se hayan incluido en la misma, al menos hasta la devolución de éstas.

7. Una vez asumida la gestión recaudatoria por el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa, los pagos, relativos a las deudas objeto de tal gestión,

ordainketak Gipuzkoako Foru Aldundiak zergabiltetarako duen kontu murriztuan sartuko dira.

Laugarrena. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuaren eginkizunak.

1. Jarduteko eskaera hirugarren oinarrian adierazitako beharkizunen arabera behin jaso ondoren, Ogasun eta Finantza Departamentuak aurrera eramango du eskaera, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Zergabilteta Erregelamenduan araututako prozedurari jarraiki.

2. Zuzenbide publikoko sarrerak direla-eta mankomunitateak eskatzen duen jarduketan Ogasun eta Finantza Departamentuak zeregin hauek izango ditu: premiamenduzko probidentzia jakinaraztea, bidezkoa denean, kontu bankarioak bahitzea, hirugarrenen kredituak bahitzea, Gipuzkoako Foru Aldundiaren kredituak bahitzea, eta soldatak bahitzea (zigor ez-tributarioen kasuan izan ezik).

3. Hitzarmen honetan aipatzen diren zuzenbide publikoko sarreraren bilteta kudeatzeko, Ogasun eta Finantza Departamentua zuzenbide publikoko sarrera propioak eta bere organismo autonomoenak bide exekutiboan biltzeko erabiltzen duen sistema berberaz baliatuko da. Gainera, zorrak behar bezala bildu ahal izan daitezten, Departamentuak informazioa eskatuko ahal izango dio hitzarmena izenpetzen duen mankomunitateari. Mankomunitateak ez badio informazio eskaerari hilaibeteko epean erantzuten, edo agerikoa bada emandako erantzuna ez dela nahikoa gertatzen, Ogasun eta Finantza Departamentuak uko egingo dio zorren kobrantza kudeatzeari.

4. Egindako jarduketaren emaitza negatiboa denean, haiekin lotuta dauden likidazioak mankomunitateari itzuliko zaizkio. Horri begira, gehienez ere 18 hilabeteko epea ezartzen da zergabiltetako organo eskudunak behar diren jarduketak egin ditzan, eta epe hori mankomunitateak jarduteko eskaera egiten duen egunetik aurrera kontatuko da.

Bosgarrena. Okerreko sarreraren itzulketa.

Okerreko sarreraren itzulketak Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak

realizados a la Mancomunidad se ingresarán en la cuenta restringida de recaudación de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Cuarta. Funciones del Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa

1. Recibida la petición de actuación conforme a los requisitos establecidos en la base Tercera, el Departamento de Hacienda y Finanzas la llevará a cabo mediante el procedimiento regulado en el Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

2. La actuación a cargo del Departamento de Hacienda y Finanzas en relación con los ingresos de derecho público que integran la petición de la Mancomunidad, abarcará: la notificación de la providencia de apremio, si procede, el embargo de cuentas bancarias, el embargo de créditos de terceros, el embargo de créditos de la Diputación Foral de Gipuzkoa y el embargo de salarios (excepto para las sanciones no tributarias).

3. Para gestionar la recaudación de los ingresos de derecho público a que se refiere el presente Convenio, el Departamento de Hacienda y Finanzas utilizará el mismo sistema que emplea para la recaudación ejecutiva de los ingresos de derecho público propios y los de sus Organismos Autónomos. Además, para llevar a buen término la recaudación de las deudas, podrá recabar información de la Mancomunidad firmante. Si la Mancomunidad no responde a dicha solicitud de información en el plazo de un mes, o la respuesta dada resulta notoriamente insuficiente, el Departamento de Hacienda y Finanzas rechazará la gestión del cobro de las deudas a que se refiera.

4. Cuando las actuaciones llevadas a cabo hayan tenido un resultado negativo, las liquidaciones a las que se refieren se devolverán a la Mancomunidad. A tal efecto, se establece un plazo máximo de 18 meses para las actuaciones a realizar por el órgano de recaudación competente, plazo que se empezará a contar desde la fecha de la petición de actuación por parte de la Mancomunidad.

Quinta. Devolución de ingresos indebidos.

La gestión de las devoluciones de los ingresos indebidos relacionadas con deudas cuya

bide exekutiboan biltzeko geratu diren zorrek zer ikusia dutenean, itzulketak horiek honela kudeatuko dira:

- a) Okerreko sarrerak jada likidatu den epealdi bati dagozkionean Mankomunitateak itzuliko ditu.
- b) Okerreko sarrerak likidatu gabeko epealdiari dagozkionean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak itzuliko ditu.

Seigarrena. Errekurtsoen erregimena.

1. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuan zergabiltzeta exekutiboaz arduratzen den organoari dagokio hitzarmen honen xede diren jarduketan aurka aurkezten diren errekurtsoak bide administratiboan ezagutu eta ebaztea.
2. Auzia ebazteko aplikatu beharreko araudia errekurritutako zergabiltzeta jarduketari lotutako likidazioak nolako izaera duen, eta hari dagokiona aplikatuko da.
3. Premiamenduzko prozedura administratiboa errekurtsoak aurkezteagatik eteteko, kasuan kasuko prozedura arau aplikagarriei jarraituko zaie. Horrelakoetan, mankomunitateak berehala jakinarazi beharko dio hori dena Gipuzkoako Foru Aldundiko zergabiltzeta organoari.

Zazpigarrena. Zerbitzuaren kostua.

Zerbitzuagatik mankomunitateak Gipuzkoako Foru Aldundiari ordaindu behar dion kostua zergabiltzeta gordinaren %10ekoa izango da.

Zortzigarrena. Likidazioak egitea eta mankomunitateari fondoak transferitzea.

Hiru hilean behin Ogasun eta Finantza Departamentuak Hitzarmen honen xede diren jarduketan emaitza jakinaraziko dio mankomunitateari, eta horretarako III. eranskinean ageri den eredua erabiliko du.

Era berean, hiru hilean behin, aurreko hiruhilekoan bildutakoa likidatuko du zazpigarren oinarrian aipatzen den zerbitzuaren kostua

recaudación ejecutiva haya asumido el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa, será la siguiente:

- a) Los ingresos indebidos correspondientes a un periodo ya liquidado serán devueltos por la Mancomunidad.
- b) Los ingresos indebidos correspondientes al periodo corriente, todavía sin liquidar, serán devueltos por el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Sexta. Régimen de recursos.

1. Corresponde al órgano encargado de la recaudación ejecutiva en el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa conocer y resolver, en vía administrativa, los recursos interpuestos contra las actuaciones recaudatorias objeto de este Convenio.
2. La normativa a aplicar al caso para su resolución, vendrá dada por la naturaleza de la liquidación objeto de la actuación recaudatoria recurrida.
3. La suspensión del procedimiento administrativo de apremio por la interposición de recursos se producirá según lo previsto en la normativa procedimental aplicable al caso. La Mancomunidad, en su caso, deberá notificar inmediatamente estos extremos al órgano de recaudación de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Séptima. Coste del servicio.

Se fija el coste del servicio a abonar por la Mancomunidad a la Diputación Foral de Gipuzkoa en un 10% del volumen de la recaudación bruta.

Octava. Liquidaciones y transferencias de fondos a la Mancomunidad.

El Departamento de Hacienda y Finanzas dará cuenta trimestralmente a la Mancomunidad de la gestión de cobro realizada como consecuencia de las actuaciones objeto del presente Convenio, utilizando para ello el modelo que figura como anexo III.

Asimismo, trimestralmente, procederá a liquidar lo recaudado en el trimestre anterior, descontando de dicha cantidad el coste del

zenbateko horretatik kenduz.

Informazio horri kasu bakoitzean bidezkoa den dokumentazioa erantsiko da.

Bederatzigarrena. Indarraldia.

Hitzarmen hau sinatzen den egunetik, urte bereko abenduaren 31ra bitartean egongo da indarrean, eta bere epemuga iritsi baino gutxienez bi hilabete lehenago bi aldeetako batek ez badu haren amaiera espresuki gaztigatzen, luzatutzat joko da zuzenean urtez urteko epe jarraituetan.

Eta azaldutakoarekin ados daudela frogatzeko, bi aldeek goiburuan ageri den tokian eta egunean sinatzen dute hitzarmena.

servicio a que se refiere la base Séptima.


Junto con dicha información, se adjuntará la documentación que en cada caso proceda.

Novena. Plazo de vigencia.

El presente convenio tendrá vigencia desde el día de su firma hasta el 31 de diciembre del año en curso, entendiéndose tácitamente prorrogado por plazos anuales sucesivos, salvo denuncia expresa de alguna de las partes con dos meses de antelación, como mínimo, a la fecha de su vencimiento.

Y, en prueba de conformidad, ambas partes lo firman por duplicado, en la fecha y lugar indicados en el encabezamiento.

**TXINGUDIKO ZERBITZU
MANKOMUNITATEAREN-LEHENDAKARIA /
PRESIDENTE DE LA MANCOMINIDAD DE
SERVICIOS DE TXINGUDI**



Jose Antonio Santano Clavero

**OGASUNEKO ETA FINANTZETAKO
FORU DIPUTATUA / EL DIPUTADO FORAL
DE HACIENDA Y FINANZAS**



Pello González Argomaniz